

# Euskal Herria diferentea da

Diferentziak beteak, alegia.

Amorrizioak polarizazioa eta alternatibismoa dakar: arrazoi dena norberak eduki nahi izaten du, besteari arrazoi dena ukatu nahi izaten zaio. Eta norbera eta besteak baino gehiagorik ez da funtsean onartzen. Potresow sozialistak Lenini buruz zioenaren moduan: «Leninek bi gizon klasetan banatzen zuen mundua: bere alde zeuden gizonetan eta bere kontra zeudenetan. Harentzat ez zegoen bien arteko (erdiko) gauzarik».

Sikologoez esango lukete, holakoek azken finean norbere Ni-a besterik ez dutela ikusten, eta beste guztiak Ni honen oihartzun edo isladura moduan bakarrik hautematen direla. Segun nola ikusten den Ni hori besteengan isladatu eta kontraespilatutik, balio horixe hartzen duu besteek.

Hortarako joera denok dugu. Eta burruka garaietan joera hori radikaltzea, fenomeno aski normala da. Ta aski normala, orobat, horrelaxe larru-bixian ez gertatzeak, Ni-tasuna objektibitate ideologikoren batekin estaltzea eta izkututzea ere: Euskal Herriaren premiekin nahiz historiaren legeekin nahiz beste zerbaitekin. Objektibitaderen bati obedi-tzen diote guztiak; inork ez du uste, objektibitate hori agian Ni-tasunaren proiektio bat besterik ez denik. Horiek bait dira Adan eta Ebaren gaurko piku hostoak.

## MENTALIDADE DIFERENTEAK

Zaharren eta berrien arteko diferentziak, azkenean, mentalidade diferentziak dira. Uste dugu uen lehenengo batean. Mentalidadeon sustraiak berak ere argitzen saia ahal izango litzake, noski. (Eta neurri hortan, argi dago, diferentziak azkenean mentalidadeak izatea, azkentasun erlatiboa delak). Sustraiak beti ekonomian —eta beti era berdinean— aurkitzen dituztenak, sistima alternatibista baten barruan kasitzen direla, jadanik ez dago berriro esan beharrik.

Aiferrik bada ere, esan beharrezkoa da, honako beste hau da: mentalidade diferentien existentzia onartu beharra dugula. Hau da, pentsakera ezberdinen arteko burruak ez duela, norbera ez beste guztiaren existentzia ukatu nahiezkoa izaterik. Alegia, beste guztiak kondentatu nahiezkoa.

Bidezkoa da, bakoitzak, besteak baino arrazoi gehiago duela, edo zuzenago dabilela, uste izatea. Baina ez norberak arrazoi dena duenik edo bide zuzen bakarra norbera denik.

Baina nork uste du horrelakorik? Inork ez. Uste, ez: baina horrela samar jakiten bai, denok ari gara. Hori da kontua.

## PLURALISMOA

Mentalidade diferentzia hauen sustraiak leku askotan bila daitezke: alurri pertsonalean, bakoitzaren familiako tradizioetan, bakoitzak egin dituen esperentzietan, estudiantu dituen gauzetan, bakoitzaren egoera ekonomikan eta egoera ekonomiko jeneralean, bakoitzaren lanbidean eta lanbide honen orain-go egoeran, etabar.

Gizarte bat aberatsa den artean, mentalidade diferentziak nahitaez edukiko ditu. Diferentzia horiek ezin sofritu baditu, oraindik ez dela oso aberatsa, oraindik ahula dela, esan nahi du horrek. Gure kasuak horixe dirudi.

Baina mentalidade diferentiek daudela, ta egon behar dutela, ta erespelatu egin behar direla, onartuz gero, badirudi, ez legokeela zergatik gure istiluei soluziorik bilatu. Bego dagoenean...

Hori ez da bidezko ondorioirik. Beste honek bidezkoago dirudi: soluzio horiek erespelotaren barruan ibili behar lukekela. Hau baitzesen txit jenerala ta arrunta da, kasi

bakoitzak nahi duen eran ententzeko modukoa. Baina utz dezagun orainzuz jeneralidade hortantxe. Ohar honekin: jadanik bazter guzietan nabari den nazka, uste dudanaz, errespeto hura gordetzen ez den seinalea dela.

Pluralismoaren modurik elementalenak, zaharren eta gazteen pluralismoa da. Baina ez zahar izateari, eta ez gazte izateari, edukitzen zaio gaur errespeto haundirik. Zahar izateari, aspalditxo galdur genion errespetoa (uste dute, errespeto hori lehenengo zaharren batzuek heurak galdur zutela). Gazte izateari, zerbait geroago. Garai batetan alaiak kanta zitekeen: «gazte gera, gazte, ta ez gaude konforme». Kasi abentura bat zen. Eta abenturafoaren gustotxoekin kantatzen zen. Harro senti zitekeen gaztea. Baina denborak asko aldatu dira. Har zazu orain AGUR: gazteen inkonformismoak, Elizatik aldentuta ibiltzek, gazteak «len ez eron egin ez bazan bezela, dena ukatu ta birinduten» ikusteko, gazte batzuen «izketa loi, izun eta baldarrak», zenbait nahi-gabe eta kezka sortzen duen. Zenbait odol-gaizto, oru eta amenazoa eta deskomunio. Honez gero, gazte izateak arriskutsu dirudi.

Gazte zenbaiten kakuakeriak, eta hain gazte ez diren zenbait ipurterre, errespeto hura zaintzen ez dutelako dira hain mingarri ta gaizto. Alibokoa beste eriztitzakoa izatea ez da, besterik gabe, mingarri. Mingarri, zenbait egoeratan gertatzen da. Ta gureak halakoxea dirudi.

## PROBLEMEN PLURALISMOA

Eritzien pluralismoari ezekiz, problemenei ere adi egon behar gaitzake. Problemaak lehen-lehenik problema berberak dira. Norbera dira. Eta ez gure intenziok. Filologikoa estabaidetan, filologikak ibili behar du nagusi. Literatur hauzietan, zientzia literariak. Eta berdin filosofian filosofiak, eta politikan politikak. Guzi horietan dago zientziari ihes egiten diton gauza asko, eta batez ere, guzi horiek daude, zientziak azterkatzen ez duen totalidade baten barruan. Baina honen inportantzia goratzearen, ez dago zientziari bere parte ukatzerik. Eta horixe besterik ez da, problema denak funtsezko problemaren batetara erreduzitzea.

Txit egoki esana eta guziz go-goangarria iruditzen zaite, E. Osak bere Pedagogia eta Gizartea liburuan, azken aldera (or. 176/177)

esaten diguna: «Ekonomia, literatura, hizkuntzak, historia eta abar, zatiak dituzte. Ikuspegi zatikatua ematen dute. Beraz, politikaren (politikaz zera esan nahi dute, munduaren, gizonaren, gizartearen ikuspegi batezazalea, koordinatzailea) ikuspegi globala behar da, zientziak abstrakzio mailan geldi ez daitezten. Zatiak analisia beharrezkoa da, gizarteko gertakari bakoitza kontsideratzea beharrezkoa da, zientziak beharrezkoak dira. Baina totalitatearekin duten zerikusia erakusten ez badugu, sistema eta estruktura globalen barnean kontsideratzen ez baditugu, abstrakzio mailan gelditzen dira». Esaldiok konzeptu-tankera hegeliotan bilduta daude (hizketa korrientean konkretu esan ohi zaiona, hemen abstraktutzat jotzen da; eta jeneralki abstrakzio bezala hartzen den totalidadea, hemen konkretua bezala dago), eta ezaguera-teorian ere guziz interesgarriak dira oharrok, zinez: baina sintomatikoa ere bada hau dena. Osak totalidadeari inportantzia bizi izan ematen dio. Esasera hau oso-osorik baitetsi beharrezkoa da: «egiako heziketak, partetik totalera eta hemendik partera etengabe joan etorria ezarri behar du» (or. 177). Baina hori ideal baten proposamendua besterik ez da: errealdidadearen gainean oinez dabilenak, kasi bakoitzean eta une bakoitzean zer gehiago azpimarkatu, erabaki behar izaten du. Osaren azpimarkatzeko modua totalidadearen aldekoa da (ideologiaren aldekoa, hortakoz). Horren inportantzia ukatu gabe, ni geroz eta isurriago nekoke, zatiak, parteak, zientzien aldea azpimarkatzera. Mentalidade diferentzien puntu dezisiboa bat hauxe duguz gero, puntu hau geroago baten sakonkiago arakatu beharko dugu.

Zatiak beren osotasunean koadratu behar dira, ekintza bakoitza bere historian, eta problema bakoitza bere testuinguruan. Zatiari bakarrik begiratu, eta osotasunaz ahaztuz, «abstrakzioaren» mailatik konkretuarenera ezin altxatuko gara. Hori ez dago ahanterik. Baina, era berean, ez dago ahanterik, gizonak berak oinarritzen eta erakitzen dituen totalidadeak beste-rik ez dagoela: hots, guziz paradoksali, parte batek erakitzen dituen totalidadeak direla denak. Eta, era berean, edozein zatiren autonomia erlatiboa ere ez dago ahanterik.

Har dezagun, adibidez, literatura: literaturak, behin egonez gero, bere barruko legeak daduzka, lege immanenteak. Literatura ez dago,



marioneta baten antzean eta ez dakit zein hariren bidez, arras bere kanpotik manejatuta (totalidadeak). Aldrebes, literatura ez da bere lege immanenteen indarrez bakarrik mugitzen. Hau da, literatura ez dago historiarekin zerikusirik gabe, kanpotik eragipenik hartu gabe, hutsunean bakandurik eta aislatutik, globo bat aidean bezala. Baina ezta totalidadearen menpetasun hutsuan ere. Osak zuzen dio, «ikuspegi globalak» zientzian oinarritua izan behar duela, «bestela, ideologikierian galtzen gara». Eta literatur-zientzian, beste edozein zientzian bezalaxe, lehen-lehenengo haren lege immanenteen eta prozesu immanenteen bila hasi behar da. Kontradizioak gauzen beren barnean bilatu behar bait da (Mao). Ta egin ere halaxe egin izan da, literatur-zientzien historian: kasi gaur arteko literatur-zientziak horixe egin du. Hori osatu beharra dago, bai: fenomeno literario partikularrak osotasunean situatu beharra dago (literaturaren beraren osotasunean, eta hau bizitza sozialaren osotasunean, eta beru ere errealdidade guziaren osotasunean). Baina hain zuzen osatu beharra. Ez gauza bera suntsitu eta galdur beharra, batzutan dirudienek. Hein honetan diferentzia guti dago, kristau eta abertzalegatik. «h» arbuizatearen (AGUR) eta sozialistagatik (?) literatura «ederra» burges deklaratuaren artean (Haranburu-Altuna: «Literatura ez da arte edo bat. Madarikatuak horrela pentsa araztera eraman gaituztenak!»). Bion azpian erreduzio ikaragarri bat dago. Ez parte totalidadean situatzea bakarrik, ezpada parte totalidadean urteza eta ia zeharo gaitzea ere bai. Tendenzialki gu-tienez. Errealidade lurtarrak beti azken finetara erreduzitzen zituen teologia klasikoaren antzeko erreduzioa. Sismalismoa.

Puntu honetan luzatu baldin banaiz, honegatik izan da: hazal-

di berriaren barruan bi joera ezberdin sortzen ari direla, iruditzen zaidalako. Ta ezberdintasun horren oinarria, teorikoki begiratu gero, goiko hortan dagoela, uste dut.

## ZAHAR ETA BERRITATIK, ESKUIN ETA EZKERRETARA

Gure egoera honen azterketan lehen-lehenengo hauteman dugun gauza, zaharren eta berrien arteko diferentziak izan dira. Hazaldien arteko diferentziari, batzuek dezi-siboa deritazte. Mitxeleak (ik. haren idazlan nauatuetako Azken ordukoak) inportantzia handia ematen dio. Nik, zahar eta gazte-tan egin ordez, batzutan zahar eta berriaren ere berezi ditut bi parteak: adinari baino problemek bere inportantzia gehiago ematearren.

Beharbada ez da diferentzia handia, baina ez nuke diferentzia hori ziruju-estetiko hutsaren modura egin nahi. Izan ere, problema asko euskal literaturan berriak dira, berez problema berriak izan gabe; eta problema horiekin kezkatuta dabilzanak, gazteak bakarrik izan gabe, halaber. Eta gure taldekatzearen problema geroz eta gutiago belfaundien problema, geroz eta gehiago pentsabide eta problematika ezberdinen diferentzia eta konfliktio, gertatzen ari delakoan. Problema zaharrak eta problema berriak.

Gizartea aldatuz doa, mugimenduan dago, eta mugimendu honetan, taldeen polarizatzeko joera nabari da. Eta, oker ez banago, tankera honekin jadanik: behin-lako diferentziak zaharren eta gazteen artekotzat har bazitezkeen, gaur-gero diferentzia haiek eskuindarren eta ezkeriarren artekoak bihurtu nahi dutela, ematen du. Konfliktuaren fase berri batetara sartzen ari gara, beraz.

Joxe Azurmendi

## TRANSPORTES

# azkar

ERAMAN-EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK  
Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.

Donosti'tik egunero:  
Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Alicante, Murcia, Cartagena, Granada, Almería, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.

Astean iru aldiz:  
Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.  
Carretera Gral. a Hernani - B.º Ergobia - DONOSTIA  
Telefonoak: 450313 eta 459723  
Aptdo. 1381  
Aptdo. 1381



# YOGUR GURELESA



## GOGOZKOENA